

LANARI LOTURIKO ESKUBIDE SOZIALAK **DERECHOS SOCIALES RELACIONADOS CON EL TRABAJO**

LANA / TRABAJO

“Ekonomia” ez da merkatu kapitalistarentzat ondare eta zerbitzuen produkzio hutsa; izan ere, bizitzaren erreprodukzioarekin zerikusia duten baldintza sozial guztiekin harremanean baitago. Ikuspegi honetatik, “lana” bizitzaren erreprodukzioa ahalbidetzeko beharrezkoak diren ondare eta zerbitzuen ekoizpenarekin loturiko giza - jarduera da.

Lanaren sexu-banaketaren ondorioz emakumeei egokituriko “lan erreproduktiboak”, aldiz, pertsonen ongizate fisikoa zein emozionala birsortzen duten jarduera multzoa dira, etxeko lanen (garbiketa, arropa garbitu, otorduak prestatu...) edota zaintza lanen bidez burutzen direnak. / La “economia” no es sólo la producción de bienes y servicios para el mercado capitalista. Sino que tiene que ver con todas las condiciones sociales que permiten la reproducción de la vida. Desde este punto de vista, “trabajo” es toda actividad humana destinada a producir bienes y servicios necesarios para la reproducción de la vida.

Los “trabajos reproductivos”, asignados mediante la división sexual del trabajo a las mujeres, engloban a todo el conjunto de actividades que permiten regenerar día a día el bienestar físico y emocional de las personas, a través del trabajo doméstico (limpiar, hacer la cama, lavar la ropa, preparar la comida, etc.) y de cuidados.

Kalitatezko lana guztiontzat/ Trabajo de calidad para todas:

- Prekarietatearekin amaitu/ Acabar con la precariedad
- Emakume eta gizonen arteko eskubide zein aukera berdintasuna/ Igualdad de condiciones y de derechos entre hombres y mujeres.

Lanaren banaketa, desberdintasunak gainditu eta bizitza bizigarria izan dadin/ Reparto del trabajo para superar las desigualdades y para el sostenimiento de la vida:

- Pertsonen bizi mantenurako beharrezkoak diren lanak gizon eta emakumeen artean modu berean banatzea./ Reparto igualitario entre hombres y mujeres de las tareas necesarias para el mantenimiento de las personas (atención a personas con dependencia, tareas domésticas...).
- Lanen banaketa/ reparto de los trabajos
- Pertsonaren sozializazioa ahalbideratuko duen lan duina/ Trabajo digno a la socialización de la persona
- Bizitza bizigarria izan dadin horren inportanteak diren zaintza lanak ikusarazi, berrantolatu eta hauekiko sensibilizatu ahal izateko, denboran iraungo duten sektore arteko konpromisoak erdietsi/ Asumir compromisos intersectoriales (sindicatos, asociaciones, colectivos, barrios...) sostenidos en el tiempo para la sensibilización, visibilización y la reorganización de los trabajos de cuidados tan importantes para la sostenibilidad de la vida.
- Etxeko lanen banaketa egin/ Compartir los trabajos del hogar

Lana, balio erantsia duen eta aberastasuna zein ongizate soziala sortzen duen jarduera ekonomiko zein sozial gisa aitortua izatea/ Reconocimiento del trabajo reproductivo como actividad económica y social que produce riqueza y tiene valor añadido.

- Eremu pribatuan, soldatarik eta aitortzarik gabe, emakumeek egiten duten lanaren erregulazioa-arautzea/ Regulación del trabajo que realizan las mujeres en el ámbito privado, sin reconocimiento ni sueldo
- Lan eskubideak sektore “ez produktiboetara” hedatzea/ Extensión de derechos laborales a

sectores “no productivos”

- Pertsona guztientzat aukera berdintasunean ezagutza, talentu eta gaitasunen aitortza/
Reconocimiento de saberes, talentos y capacidades en igualdad de oportunidades de todas las personas.
- Jarduera soziala burutzeagatik (militantzia...), eskubideen aitortza/ Reconocimiento de derechos por actividad social (militancia...)
- Lan erreproduktiboa BPG-ean kontabilizatzea/ Tasar el perso del trabajo en el PIB

ENPLEGUA / EMPLEO

Kalitatezko enplegua guztiontzat/ Empleo digno para todas:

- Pertsona guztiei enplegurako eskubidea bermatu/ Garantizar el derecho al empleo a todas las personas.
- Bizitza hobea edukitzea bermatuko duen enplegu duina izateko eskubidea/ Derecho a un empleo digno para garantizar una vida mejor.
- Pertsona orok kalitatezko enplegua, egonkortasun laborala eta ordainsari justua edukitzeko eskubidea/ Toda persona tiene derecho a un empleo de calidad, a la estabilidad laboral y a recibir una remuneración justa.
- Inklusio soziala eta garapen pertsonal zein kolektiboa bermatuko duen kalitatezko enplegua izateko eskubidea/ Empleo de calidad que garantice la inclusión social y el desarrollo personal y colectivo.
- Zergen bidez eskubide zein betebeharrak sozialak bermatuko dituen enplegurako eskubidea/ Trabajo digno que permita sufragar con los impuestos, las garantías y derechos sociales.
- Gazteak lan merkatu sartzeko neurri errealak/ Medidas reales para la incorporación de la juventud al mercado de trabajo

Lanaldiaren berrantolaketa soziala/ Reorganización social de la jornada laboral:

- Lanaldiaren berrantolaketa soziala definitu eta zehaztu ahal izateko, azterketa sozio-laboral baten beharra/ Necesidad de un análisis socio-laboral para la reorganización social la jornada laboral
- Enpleguaren genero azterketa egitea, ikuspegi feministatik abiatuta/ Realizar un análisis de género desde una perspectiva feminista.
- Lanaldia murriztu eta behar sozialen arabera berrantolatzeko eskubidea, gehienez 35 ordu astean/ Reducción y reorganización conforme a las necesidades sociales, de la jornada laboral, como máximo 35 horas semanales.
- (Estrukturalak ez diren) Ordu extrak debekatzea/ Prohibir las horas extras (no estructurales)
- Jubilazio adinaren txikitzea/ Disminución de la edad de jubilación
- ETT eta azpikontratek enplegua prekarizatzen dute! Las ETT y las subcontratas precarizan el empleo!
- Aurrerapen teknologikoen, jendarteak dituen behar zein hutsuneei zuzenduriko beste zerbitzu batzuk betetzea./ Usar el progreso tecnológico para responder a las necesidades y vacíos de las sociedad

Bidezko soldata duina izateko eskubidea/ Derecho a un sueldo de calidad y justo

- Enplegu duina, aberats eta pobreen arteko ezberdintasun soziala murrizteko, non gehien eta gutxien kobratzen dutenen arteko aldea progresiboki txikituko den./ Trabajo digno que recorte la brecha de desigualdad social entre ricos y pobres, que igual progresivamente salarios entre los que más y menos cobran.
- Lan jarduerak sortzen duen aberastasunaren banaketa justurako, baimendutako diru-sarrera maximoa ezartzea./ Instauración de un ingreso máximo autorizado para el reparto justo de la riqueza generada en la actividad laboral.
- Etxeko lanetan, bereziki neskame gisa, dabilzan pertsonak pairatzen dituzten lan baldintza ezberdintasuna ezabatu/ Eliminar las desigualdades en las condiciones laborales de las trabajadoras del hogar, en especial de las interinas.
- Bidezko ordainsaria izateko eskubidea, kategorien arteko soldata- ezberdintasunik gabe/ Derecho a una retribución equitativa, sin diferencias salariales en las mismas categorías.
- Pobreziaren mugatik gora (BPGren %35a) kokatuko den LGS (soldata mediaren %60a)

bermatu/ Garantizar un SMI (60% del salario medio) que esté por encima del umbral de la pobreza (el 35% del PIB)

Langileon lan eskubideen bermea/ Garantizar los derechos laborales de las trabajadoras:

- Grebarako eskubidea/ Derecho a la huelga
- Lortutako eskubideen atzeraezintasuna aitortzea/ Reconocimiento de la no retroactividad en los derechos adquiridos.
- Negoziazio kolektiborako eskubidea/ Derecho a la negociación colectiva
- Ekintza sindikalerako eskubidea/ Derecho a la acción sindical
- EHan lan egiten duen orok, bertako hitzarmen kolektiboaren baitan lan egiteko eskubidea du/ Toda persona que trabaje en EH tiene derecho a hacerlo en base al convenio colectivo de aquí.
- Esparru laboralari buruzko formazio errealerako eskubidea/ Derecho a la formación real de ámbito laboral.
- Lan osasun zein prebentzio publikorako eskubidea/ Derecho a la salud y prevención pública.
- Mutuak eta harremanduriko erakundeak sistema publikoan barneratzea/ Integración en es sistema público de mutuas y organismos relacionados
- Administrazioek eraikuntza lehiaketatan, kontratazioetan, lizitazioetan etabarretan jaso behar dute, esleipena lortu duen enpresaren betebeharra dela kontratatuko dituen langileak herrialde mailako edota erreferentziatzko herrialdeko hitzarmenekin kontratatzea/ Las administraciones deben recoger en los concursos de obra, contrataciones, licitaciones... la obligación de las empresas adjudicatarias que contraten a las trabajadoras con los convenios provinciales o autonómicos de referencia.
- Baldintzen pliegoetan, parekidetasuna eta euskarazko gaitasuna jaso behar dira kontratazioei dagokionean/ En los pliegos de condiciones, se debe incluir la paridad en la contratación.
- Baldintza pliegoetan, euskarazko gaitasuna jaso behar dira kontratazioei dagokionean/ En los pliegos de condiciones, se debe incluir la la capacitación del euskara en la contratación.
- Prebentzio eta osasun laboralerako eskubidea/ Derecho a la prevención y salud laboral.
- Langile klasearen (eta oinarri sozialaren) antolatze eskubidea: sindikatuak, kolektiboak, mugimendu soziala.../ Derecho de la clase trabajadora (y la base social) a organizarse: en sindicatos, colectivos, movimiento social...
- Enpresan kargu sindikaletan jardun ahal izateko, kontziliazioa hobetu/ Mejorar la conciliación para que se puedan ejercer cargos sindicales en la empresa.
- Parekidetasun planak garatzea enpresa barnean/ Desarrollo de los planes de igualdad dentro de la empresa
- Euskararen normalizaziora bideraturiko plangintzak enpresatan/ Planificaciones para que el euskara se normalice dentro de la empresa.
- Langile klasearen klase kontzientzia handitzea sustatu/ Concienciación de la clase trabajadora como clase.

Gizon eta emakumeen arteko aukera zein baldintza berdintasuna/ Igualdad de oportunidades y condiciones entre mujeres y hombres.

- Soldata, eskubide eta aukera berdintasuna/ Igualdad de salarios, derechos y oportunidades.
- Ezberdintasun sozialei ez!/ No a las desigualdades sociales.
- Lanean soldaten arteko aldearekin eta zatiketa sexualarekin (fisikoa, psikikoa eta sozialarekin) amaitu!/ Acabar con la brecha salarial y la división sexual del trabajo (física, psíquica y social)

- Enplegu jasangariak eta bidezkoak sustatu/ Fomento de empleos sostenibles y equitativos.
- Emakumeak lanpostuetan diskriminatuak ez izateko eskubidea (lan eskaintzak, soldatak, prekarietatea...) / Derecho de las mujeres a no ser discriminadas en los puestos de trabajo (ofertas de trabajo, salarios, precariedad...)
- Kontziliazio laboral, profesional eta pertsonalerako aukera/ Derecho a la conciliación real laboral, profesional y personal.
- Negoziazio Kolektiboaren bidez, kontziliazio neurriak dituzten enpresekiko diskriminazio positiboa/ Medidas de discriminación positiva en las empresas que toman medidas de conciliación, mediante el Convenio Colectivo
- Emakume zein gizonentzat baimen eta lizentzia berdinak/ Permisos y licencias iguales para hombres y mujeres
- Ama/aitatasunagatik hartzen diren eszedentzia zein lizentziak osoaj, betebeharrekoak eta intrasferibleak izatea/ Excedencias o licencias derivadas de la mater/paternidad íntegras, intrasferibles y obligatorias

Babes Sozial eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua (BSLHEE)/ Ámbito Vasco para la Protección Social y Relaciones Laborales (AVPSRL)

- Lan kode propioa /Código laboral propio
- Lan legedi propioa. Enpresa Komiteak eta Instituzioak eskubide honen bermatzaile izan behar dute/ Legislación laboral propia. Control de los Comites de Empresa e instituciones, como garantes de este derecho.
- Euskal Langileen Estatutu propioaren ezarpena/ Instauración de un Estatuto Laboral de Trabajadoras Vasco.
- Bitarteko nahiko izango dituen Inspekzio propioa. Kontrol zein zigor mekanismo gehiago/ Mayores herramientas de control y sanción, mediante una inspección propia dotada de medios suficientes.
- Enplegu politikak garatu ahal izateko erabateko gaitasuna/ Capacidad plena para poder llevar a cabo políticas de empleo.
- Euskal Herrian ez aplikatzea Madrilek nahiz Parisek ezarritako dekretuak/ no aplicar en Euskal Herria ningún decreto impuesto por Madrid y Paris.
- Burujabetza ekonomikoa, burujabetza pertsonalerako giltzarri da. Hori dela eta, emakumearentzat garrantzia berezia du/ La importancia de la soberanía económica para ejercer la soberanía personal en todos los aspectos de la vida. De ahí su importancia para la mujer de un empleo que otorgue esa soberanía.

Parte hartzea - erabakitze eskubidea/ Participación – derecho a decidir

- Gestioa partekatua. Langile klasearen parte hartzea erabaki politiko – instituzionaletan/ Co-gestión. Participación de la clase trabajadora en las decisiones (político – institucionales).
- Langileek lan egiten duten enpresa kudeatzeko (parte hartu eta erabakiak hartzeko) eskubidea/ Derecho de las gestión (participación y toma de decisiones) de las trabajadoras en la empresa en la que trabajan.

Instituzioak/ Instituciones

- Instituzioek legeak eta hitzarmen kolektiboak bermatu behar dituzte/ Las instituciones tienen que garantizar leyes y convenios.
- Enplegu zerbitzuek praktika onak bermatu behar dituzte pertsona guztiei bitartekaritza, interpretazio, formazio eta esleipen egokiak ahalbidetzeko./ Los servicios laborales tienen que garantizar buenas prácticas en la mediación, interpretación, formación y colocación de todas las personas.

- Enpresa handiekiko kontrol handiagoa edukitzea / Mayor control del estado sobre grandes empresas